

**HARTUNE ETA ISURKETA BAIMENEN
IZAPIDETZEAGATIKO TASAREN ORDENANTZA FISKAL
ERREGULATZAILEA**

HARTUNE ETA ISURKETA BAIMENEN IZAPIDETZEAGATIKO TASAREN ORDENANTZA FISKAL ERREGULATZAILEA

1. artikulua. Foru Araudia

Añarbeko Uren Mankomunitatearen saneamendu-sare publikoko hartune baimenen eskaeren izapidetzeagatiko tasak eta saneamendu-sare publiko horretarako isurketa baimenen eskaeren izapidetzeagatikoak Mankomunitateko Saneamendu eta Isurketen Erregelamenduan aurreikusiak daude. Ordenantza Fiskal honek arautu eta eskatu egingo ditu tasa horiek, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araudiaren 3. sekzioko, III. kapituluko II. tituluan ezarritako xedapen orokorren arabera.

Añarbeko Uren Mankomunitateak kudeatuko, kitatuko eta bilduko ditu tasak, bere sozietate kudeatzaile publikoaren bidez, hots, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. (aurrerantzean AUSA).

2. artikulua. Zergapeko egitatea

Ordenantza Fiskal honetan erregulatzen diren tasak eskatzeko eskubidea zehazten duten zergapeko egitateak honako hauek dira:

- a) Mankomunitatearen saneamendu-sare publikoko hartune baimenen eskaeren izapidetzeari dagokionez, Añarbeko Uren Mankomunitateak egin behar duen jarduera, tekniko eta administratiboa. Jarduera hori Saneamendu eta Isurketa Erregelamenduaren 11. artikuluan aurreikusia dago eta honako hau du helburu: baimenak emateko beharrezko baldintzak betetzen diren ala ez xedatzea; baimenak ematen diren kasuetan, sare publikoarekin loturak egiteko tokia eta ezaugarri teknikoak xedatzea; eta lotura lanak baimenean ezarri bezala egin direla egiaztatzea.
- b) Mankomunitatearen edo bere kide diren Udalen saneamendu-sare publikorako Isurketa Baimenen eskaeren izapidetzeari dagokionez, Añarbeko Uren Mankomunitateak egin behar dituen jarduera tekniko eta administratiboa. Jarduera hori Saneamendu eta Isurketa Erregelamenduaren 12. artikuluan aurreikusia dago eta honako hau du helburu: baimenak emateko beharrezko baldintzak betetzen diren ala ez xedatzea.

Baimen eskaerek bete behar dituzten baldintzak eta eskaeren izapidetze prozedura Mankomunitatearen Saneamendu eta Isurketa Erregelamenduak arautzen ditu eta prozeduraren garapenean eman daitezkeen xedapenek.

Añarbeko Uren Mankomunitateak izapidetu eta kudeatuko ditu eskaerak, AUSAren bidez.

3. artikulua. Zortzapena

Ordenantza Fiskal honetako tasak zortzapenak dira, Ordenantza Fiskal honetan araututako zergapeko egitateetan aipatutako baimen eskaerak aurkezten direnean sortzen da zorra.

4. artikulua. Zerga ordaintzeko beharra

Zerga ordaintzeko beharra Ordenantza Fiskal honetan araututako zergapeko egitateetan aipatutako baimen eskaerak aurkezten direnean sortzen da.

5. artikulua. Subjektu pasiboa: zergaduna

Ordenantza Fiskal honetan ezarritako tasen subjektu pasibo zergaduntzat hartuko dira honako hauek: Gipuzkoako Lurralde Historikoan martxoaren 8an argitaratu zen Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 35. artikuluan aipatutako pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, izaera juridikoa izan ala ez, ezarpena jaso dezaketen unitate ekonomikoa edo ondare banatua osatzen dutenak, eta Ordenantza Fiskal honetan araututako zergapeko egitateetan aipatutako baimen eskaerak aurkezten dituztenak.

6. artikulua. Zerga kuota

Ordenantza Fiskal honetako tasen ezarpenerako, zerga kuotak zergapeko egitate bakoitzerako behin bakarrik eskatuko dira eta kopuru finkoa izango da. Konkretuki:

- a) Ordenantza Fiskal honetako 2. Artikuluan aurreikusitako a) ataleko zergapeko egitaterako, Añarbeko Uren Mankomunitateak zehaztuko du kuota finkoa eta Ordenantza Fiskal honen 1. Eranskinetako 1. atalean agertuko da.
- b) Ordenantza Fiskal honetako 2. Artikuluan aurreikusitako b) ataleko zergapeko egitaterako, Añarbeko Uren Mankomunitateak zehaztuko du kuota finkoa eta Ordenantza Fiskal honen 1. Eranskinetako 2. atalean agertuko da.

7. artikulua. Tasak ordaintzeko modua

Ordenantza Fiskal honetako tasak subjektu pasiboek ordainduko dizkiote AUSAri; horretarako, AUSAK dagozkien fakturak jakinaraziko eta emango dizkie alde zurretik, eta haiekin tasa kitatuko da.

Ordenantza Fiskal honen xede diren tasak jasotzen dituzten fakturen ordainketa, AUSAK egiten dituenak alegia, aurkeztuak izan diren eskaerak erantzun eta entregatu aurretik egingo da.

Faktura edo kitapenen aurkako errekurtsioak jar daitezke, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren arabera.

8. artikulua. Ezarpen orokorrerako arauak

Gipuzkoako Tokiko Ogasunak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren arabera, Ordenantza Fiskal honetako tasetara aplikatu daitezke, aipatutako 11/1989 Foru Arauko xedapenak ez ezik, kudeaketari, kitapenari, ikuskaritzari, diru bilketari, zerga arau hausteei eta zigorrei buruzko xedapenak ere. Azken horiek Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Diru Bilketa Erregelamenduan erregulatuta daude.

Xedapen gehigarria

Ordenantza Fiskal hau Añarbeko Uren Mankomunitatearen Saneamendu eta Isurketa Erregelamenduaren arauen arabera erabili eta interpretatuko da.

Azken xedapena

Ordenantza Fiskal hau eta bere 1. Eranskina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean jarriko dira indarrean. Tasen zenbatekoek 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina edo, argitaratu ondorengo egunetik aurrera, urtarrilaren 1a baino geroago argitaratzen bada. Ordenantza Fiskala indarrean egongo da indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

1. ERANSKINA

Hartune-Baimenak eta Isurketa-Baimenak izapidetzeagatiko
Tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalean aurreikusten
diren kopuruak

1. Hartune-baimena izapidetzeko kuota

Honako balio hau da: 334,18 €/ eskaera

2. Isurketa-baimena izapidetzegatiko kuota

Kopurua honako hau da: 182,87 €/ eskaera
